

## **STEILASek 2021-2022 ikasturterako planifikazioan COVID-19a dela eta baliabide pertsonal gehigarriak mantentzea edo handitzea eskatzen du**

2020-2021 ikasturtean COVID-19a dela eta 1.000 irakasle plaza inguru gehigarri egon dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola publikoetan. Kurtsoa hasi baino lehen STEILASek adierazi zuen irakasle kopuru hori nahikoa ez zela izango, hala ere, irakasle horiek ezinbesteko bilakatu dira ikastetxeetako hezkuntza proiektuak, modu presentzialetan, berme sanitario nahikorekin aurrera eraman ahal izateko. Hezkuntza sailburuak ere modu egokian baloratu du langile hauen kontratazioa pandemiak sortu duen salbuesenezko egoerari aurre egiteko.

Datorren ikasturterako planifikazioa egiteko momentuan gaude eta egoera sanitarioa ez da hobetzen ari. Gaur gaurkoz ez dago eskolak normaltasunera bueltatuko diren inongo ziurtasunik. Horregatik 2021-2022 ikasturterako planifikazioan baliabide pertsonal horiek guztiak, irakasleak, hezitzaileak, begiraleak, garbitzaileak,... mantentzea edo handitzea eskatzen du STEILASek, eskola proiektuak ahalik eta berme sanitario eta pedagogikoekin gara daitezen.

## **STEILAS exige el mantenimiento o incremento de los recursos personales extra por COVID-19 en la planificación para el curso 2021-2022**

En el curso 2020-2021, con motivo del COVID-19, se ha dotado a las escuelas públicas de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa con cerca de 1.000 trabajadoras y trabajadores. Antes de comenzar el curso STEILAS declaró que ese número de profesorado no sería suficiente. A pesar de ello, este profesorado se ha convertido en imprescindible para poder llevar a cabo los proyectos educativos de los centros de manera presencial con suficientes garantías sanitarias. El propio consejero ha valorado de manera positiva la labor de estas trabajadoras en los centros educativos para poder dar respuesta a la situación excepcional generada por la pandemia.

Estamos en el momento de planificar el próximo curso y la situación sanitaria no está mejorando. A día de hoy, parece improbable que los centros educativos vayan a comenzar con normalidad el 1 de septiembre. Por ello, STEILAS exige el mantenimiento o incremento de estos recursos personales: profesorado, educadoras, personal de comedor, de limpieza,... en la planificación para el curso 2021-2022, con el fin de que los proyectos educativos se puedan desarrollar con las máximas garantías sanitarias y pedagógicas.

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)